

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

2/2017 Foru Araua, otsailaren 15ekoa, urtarrilaren 24ko 1/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, egokitzen dizkiona Arabako tributu araudiari zerga berezien arloan egindako zenbait aldaketa

Arabako Batzar Nagusiek, 2017ko otsailaren 15ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

2/2017 Foru Araua, otsailaren 15ekoa, urtarrilaren 24ko 1/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, egokitzen dizkiona Arabako tributu araudiari zerga berezien arloan egindako zenbait aldaketa.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, urtarrilaren 24ko 1/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, egokitzen dizkiona Arabako tributu araudiari zerga berezien arloan egindako zenbait aldaketa.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Biltzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Biltzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Biltzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da 1/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 24koa, egokitzen dizkiona Arabako tributu araudiari zerga berezien arloan egindako zenbait aldaketa.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 15a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA